



PÉREZ, Juan Ignacio; SALABURU, Pello
Unibertsitatea eta euskal gizartea, gaur

Iruña: Pamiela, 2003. – 238 or. ; 22 cm. – ISBN: 84-7681-370-8

Liburuan Unibertsitateko arazo nagusienak aztertzen dira. Unibertsitateak gero eta garrantzi handiagoa du gizartean; eta, euskal gizarteari dagokionez, urteetan piztuta eta konpondu barik dagoen eztabaidarako balio du liburua; batez ere, Herri honek –Euskal Herriak, osorik– unibertsitate sistema osoaren ikuspegi bateratua behar duelako eta bere berezko hizkuntzak, euskarak, euskal gizartearen unibertsitateetan merezi duen toki berezia izan behar duelako, berea; hona hemen liburuaren muina. Horregatik, Pedro Miguel Etxenik *Unibertsitatea hizpide* liburu honen hitzurrean, 11. orrialdean, idazten du: “Euskara gure hizkuntza da, eta gure hizkuntza denez, bere tokia behar du unibertsitatean ere”.

Liburuan iturriak 221-224 orrialdeetan daude. Baina egileek ez dute hor denon esku zeuden iturriak aipatu ere ez, batez ere Euskal Herrian dauden beste unibertsitateen datuak eta iritziak gonbaratzeko orduan; adibidez, EIREK, 2001eko irailaren 27 eta 28an, antolatutako Kongresuaren liburua “*Euskal Unibertsitatea-2021* egiten ari garen euskarazko unibertsitatea*”. Bilbo: UEU, EIRE; 2002; 491 or. ISBN: 84-8438-028-9 (ikus ere: Rev. Int. Estud. Vascos. 46, 2, 2001, 967-972 or.). Edo, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren “diagnóstico del sistema público universitario vasco”. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia 2001; 428 or, ISBN: 84-457-1669-7. Edo, Euskaldunon Egunkarian agertutako zenbait artikulua (nahiz eta, kasu honetan, liburuak aipamena egin duen 174. orrialdean; ordea, ez dute iturrietan 224. orrialdean jarri). Edo, erakundeen txostenen artean EHUKoak ez diren beste batzuen, adibidez: *Estudio sobre “La inserción laboral de tituladas y titulados de la Universidad Pública de Navarra (1993-1997)”*. Fundación Universidad-Sociedad. 2000. Eta zerrenda ez luzatzearen, EIREKA aldizkarian agertu ziren unibertsitate ezberdinen datu konbaratiboak (ikus: EIREka, 2. alea, 2000, 8-19 or.; eta, 3. alea, 2002, 26-43 or.).

Egileek Euskal Herriko Unibertsitateak aipatu dituzte. Baina, datu deskriptiboak ematerakoan Euskal Herriko ikuspegia Nazioarteko datuekin konbaratuta eman dute; ordea, EHUKo datuak eta nazioarteko batzuk erabili dituzte gehien, eta oso gutxi Euskal Herriko beste unibertsitateetakoak.

Liburua honela dago egituratuta: lehenen, Pedro Miguel Etxeniker *Unibertsitatea Izpide* hitzurrea; gero: Sarrera; 8 atal (1. Gizartea eta Unibertsitatea; 2. Unibertsitate autonomiaren inguruko arazo batzuk; 3. Diru kontuak unibertsitatean; 4. Irakaskuntza; 5. Ikerkuntza; 6. Jakintza gizarteratzeko beste bide batzuk; 7. Unibertsitatearen erronkak; 8. Unibertsitatea eta Euskal Herria); laburpena; iturri aipatuak; taulak; oharra; eta, aurkibidea.

Egileek gaia era deskriptiboan azaldu dute; ondoren beren iritziak plazaratuz; ordea, besteen planteamenduak adierazteko: “batzuk” “hainbatek” “aldarrikatzen hasiak dira” erabiliz, beti eztabaidarako bideak irekita utziz, baina zoritxarrez, hauen iturria aipatu barik, adibidez: “unibertsitate elebakarra”, “Euskal campusa”(198. or.). Behin baino ez, oso aurka: “Euskal barrutia”z, baita ere iturriak zein definizioak aipatu barik (186. or.). Ordea, ia-azkenean, 201. orrialdean, Pompeu i Fabra adibidetzat jarri, egileek hauxe proposatu digute: “Gure kasurako ezin egokiago litzateke irizpide hori” (hots: hizkuntza propioa %50; eta gaineratikoa, gaztelania ingelesa baino porzentaia handiagoan). Nire iritziz, ez dut uste eredu horrek euskaldunei euskaraz ikastea bermatzen duenik.

Unibertsitatearen arazoak aztertzen dituzte atalka. 1. atalean, “Gizartea eta Unibertsitatea”, EUSTAT, OECD, INE, INCUAL eta EGAILANen datuak 16 taula oinarri, hauek ondorioztatzen dituzte: Espainian EAeri dagokio igoera handiena; lan-irabaziak titulazioaren menpekoak dira; eta lana jarduera alorrek baldintzatzen dute. Horregatik, unibertsitateak gaitasun estrategikoa eman behar die tituludunei. Unibertsitateak aberastasuna itzultzen dio gizarteari; gizartearentzat oso merkea da.

2. atalean, Unibertsitate autonomiaren arazoak aipatzen dira: finantzazio-sistema, lan-merkatuaren arauak, politikak autonomia baldintzatzen duela,... Autonomia neurri bateraino dela diote, gizarteari zerbitzua eman behar diolako; adibidez, euskaraz. “Unibertsitateak... euskaraz eskaintzeko asmorik izango ez balu, Herri aginteen ardura da,..., eskaintzea, eta unibertsitateari hori egin dezan baldintzak jartzea, eskaintza hori bermatzeko” (54. or.). “Unibertsitate lege berriak areagotu besterik ez du egiten autonomia eza” (56. or.). Irakasleak kontratatatzeko bidez eta kalitateaz nazioarteko datuak emanez, mezu hau emanez: Euskal Herrian, euskaraz ematea da kalitate horren ezaugarrietako bat, hori baita bezeroek eta gizarteak eskatzen duena, “gakoa ez da endogamia, kalitatea baizik”.

3. atalean, “Diru kontuak unibertsitatean”, 17-21 tauletan oinarritzen dute baieztapenak: EAeri dagokion ahalegin eskasak; EAEn eta Nafarroan hezkuntza pribatuak duen pisu handia; eta Nafarroan (pribatuan) ikasle asko kanpotik datozela. Inbertsioan, 3 multzo: inbertsio-gastuak, soldadak eta jardunerako gastuak. Deigarria izanik NUPen: soldaten % apala; kontratatuen kopurua funtzionarioarena baino garaia goa; eta, zatiko arduraldikoak direla horietako askok (EHUn aurkakoa gertatuz). Nork finantzatu behar ditu, Euskal Herrian ikasleen %30 pribatuan badaude?. Lege araguntzan, zerbitzu publikoa denez, finantzazio publikoa eduki beharko luke: sistema mistoa; eta Herri erakundeek helburu nagusiak ezartzeko eskumenak izan beharko lituzkete. Adibidez, “Gure herrian, bermatuta egon beharko luke euskarazko irakaskuntza” (90. or.). Nola? Finantzazioen artean hauek proposatzen digute: ikasleen araberako finantzazioa, eta programa-kontratuen bitartez finantzazio baldintzatua.

4., 5., eta 6. ataleetan, Unibertsitatearen eginkizunak azaltzen dira. Honela, 4. atalean, “Irakaskuntza”z, 22-31 taulen laguntzaz, hauek ondorioztatuz: helburu akademikoak edo profesionalak definitu behar dira; “ikaste-prozesuan” aurrez ikusita zegoena baino denbora luzeagoa behar dute ikasleek, batez ere lehen kurtsoan. Hauxe proposatuz: lehenbizi, ziklo generalista; eta gero, pixkanaka berezitasunera jotzea gizartearen beharrak kontuan hartuz, beti Tutoretzen garrantzia azpimarratuz. Ikasle/irakasleen proportzioari dagokionez, NUPen EHUn baino egoera hobea goa da. Premiazkoa izanik azpiegitura baliabideak; EAEn gutxi inbertitzen da; irakaskuntzan ikerkuntzan baino gutxiago.

5. atalean, “Ikerkuntza”. 32-40 zenbakiko tauletan oinarritzen dira. EHUn %40 inguruk ez du ikerkuntza lanik egiten. Baina, ez dute analizatzen zergatik. Ordea, egi-

leek, jarduera sustatzeko kontuan hartu behar diren faktoreak aztertzen dituzte: ibilbide akademikoa, jakintza arlo guztietan garapen orekatua (EAEn gizarte zientzien alorrean apalagoa da), pizgarriak arlo guztietan eta arlo bakoitzeko ebaluazio tresnak eta berezko egiturak. Bidea proposatuz: lehenen, “talde ezagunak”, horretarako estrategia definituz; ondoren, ikertzaile gazteak trebatu; eta, beste herrietakoak erakarri. Ikerketa institutu berriak sortu, oinarrizko ikerkuntza eta estrategiazko ikerkuntza sustatzeko. Baliabideak: Inbertsio publikoa txikiagoa da Europar Batasunarekin konbaratuz, hala ere EAEn Espainian baino ahalegin handiagoa egiten da inbertsio pribatuan. Iparraldean (133. orrialdean) Baionako IUTaz gain, 14 ikerketa zentro daude, neurri txikiak; horregatik ere, Hegoaldean baino ahalegin txikiagoa egiten da. “Ahalegina egiten denean, inbertitzen denean, emaitzak ere handiagoak dira”; “ezin da ikerkuntza seriorik egin lehenetsuna ez baldin badarama unibertsitateak”, oinarrizko ikerketaren beharra azpimarratuz.

6. atalean, “Jakintza gizarteratzeko beste bide batzuk”. Gizartea aberastea da helburua, baina gizarteak ez daki zer egiten dugun, mesfidantza dago. Egitura berriak beharko lirateke jakintza produktuen transferentzia helarazteko. Komunikazio estrategia egituratu eta abian jarri helburuak lortzeko.

7. atalean, “Unibertsitatearen erronkak”; 41-50 zenbakidun tauletan oinarritzen dituzte baieztapenak. Aldaketa demografikoaren ondorioz, EAEk 2014arte gero eta gazte gutxiago izango du. Baina etorkizuna baldintzatuko duen egoera dugu: irakasle ez diren langilerik gabeko unibertsitatea, gehienak erdaldunak, inbertsio handien eza, titulazio berri asko, etab.

Eskolatzetasa garbia handituz doa, tasa gordina apalduz doan bitartean, kanpoteik ikasle gutxiago datozelako. EHUen desoreka dago hautaprobetan euskaraz egiten dutenen eta matrikulatzen direnen artean, “ikasleak ez dutelako aukerarik ikasketa guztiak euskaraz egiteko”. Liburua idazterakoan, ikasleen artean %50k euskaraz egiten zituen unibertsitateara sartzeko hautapropa. “Egitura arazoa dago”. EHUK ez duela egoitza nahikorik; irakasleen heren bati delako gai euskaraz irakasteko. Etorkizunean unibertsitateen arteko lehia egongo da: kalitatea neurtuko da; eta, sailkapenak agertuko dira. Komunikaziorako teknologiak bultzatuko dira, eta egileek lehiarako beste faktore bat gehitu dute: euskara, ikasle gehiago izateko; sare telematikoa bat egin eta ikasleak Euskal Herriko unibertsitateetara erakartzen saiatzeko. Aldi berean, seaskatik hilobirainoko prestakuntza eman beharko dute ikasketen eskaintza zabalaz. Fundazioak ere eratu beharko dira unibertsitatearen kontrolpean. Erronkak finantzazio egokiera behar du gizararteak unibertsitatea berea dela nabari dezan.

8. atalean, “Unibertsitatea eta Euskal Herria”n, ez dago laukirik; hausnarketa eta honelako mezuak baizik: gaur ez dago Euskal Herriko unibertsitate sistemarik; baina badu zentzua eratzeko, euskal herritar eta euskal gizarartearen kultura nortasuna indartzeko; unibertsitate produktuen eskaintza osagarria egiteko; unibertsitate desberdinetako ikerketa taldeen arteko lankidetzarako; edo gizarte eragileen eskura jakintza zerbitzuen eskaintza osagarria jartzeko. Baina hauek adierazi ondoren, ordea, egileek Euskal Herriko unibertsitate barrutiaren aurka agertzen dira; eta, 186. orrialdean diote “ikasleen mugikortasunari hesiak jartzeko erabiltzen dira barrutiak, eta ez dugu uste hori komeni zaiguniki”. Nire iritziz, agian pentsatzen ari dira Espainiako unibertsitate-lege derogatuaren erudian zeuden barruti itxietan, non barruti kanpokoei zailtasunak jartzen zituzkieten bertan sartzeko. Ez dute kontuan hartu “barrutia” ez dela zertan baztertzailera izan behar, babestzailea ere izan daitekeela; batez ere, duen definizioarekin: “barrutia” eskubide zibilak edo politikoak erabiltzeko helburuz ordenatutako lurralde baten demarkazioa. Egileek, barrutiaren aurka egoteko ikasleen mugikortasunari hesiak jartzen direla aipatzen dituzte; eta ordea, aurkakoa gerta dai-

teke, “barrutia” honela definituz, “hizkuntza eskubideak erabiltzeko, babesteko, bermatzeko, demarkazioa”. Demagun, Europako eremuan ikasleak unibertsitate batetik bestera oztoporik gabe mugi daitezkeela; orduan ados, barrutiak sobran daude; baina ez da horrela gertatzen; Europako eremuan ikasleak ahal dute mugitu hitzarmen batzuen barruan; eta, Espainiak barruti bakarra sortu du Espainiako Estatuaren mugetan. Ondorioz, “Euskal barrutia”: euskal ikasleen hizkuntza eskubideak bermatzeko helburuz, euskaraz ikasi nahi duen orok mugitzeko oztoporik ez edukitzeko helburuz, kontuan hartuz Euskal Herriko unibertsitateetan irakasten dela euskaraz eta maila berean ez beste inon, euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko demarkazioa izango zen; hain zuzen, euskal barrutia, Europaren eremuan eta Nazioartean. Honela ez da kaltetzen inoren eskubidea, zeren gastelaniadun hiztunek ahal izango baitute gastelaniaz ikasi Espainiako unibertsitate sistemaren barruan, frantses hiztunek ahal izango baitute frantsesez ikasi Frantziako eremuan, eta euskaldun hiztunek ahal izango dute “Euskal barrutia”n euskaraz ikasi. Bidebatez, Europako eremuan mugikortasuna bultzatuz aukera-berdintasunean. Gainera, euskaraz eskaintzen dituzten euskal barrutiko unibertsitateek euskaraz ikasi nahi duten ikasleek irabaziko lituzkete, beste hizkuntzetan ikasi nahi dutenek galdu barik; demarkazio horretan hizkuntza eskubideak berdintasun aukeran bermatuz, goi mailako irakaskuntza, gizar-teari diskriminazio barik eskainiz.

Egileek, euskal unibertsitate bakarraz ere mintzo dira eragozpen politikoak jarriz publikoa egiteko; baina, ez dute ezer esan pribatu bati buruz. Baita EHUko egituraren aldaketa ez da baztertzen, Campusa aipatuz; baina egileek aldi berean diote “EHUK sistema bat osatu beharko luke – ez gaude printzipioz unibertsitatea banatzearen alde”. Baina galde egioгу geure buruari: zer da Campus-a? unibertsitatearen orube eta eraikin multzoa da; Campus-a ez da zertan geografikoa izan behar; “Euskal Campusa”, campus funtzionala izan daiteke, euskaraz diharduna, lurralde desberdinetan egon daitekeena, baina euskara muintzat hartuz, bere kudeaketa-egitura propioarekin, EHUren barruan. Etorkizunak esango lukeen banatzearena ala ez. 198. orrialdean egileek diote: “euskara hizkuntza nagusia izango luketen Campus edo unibertsitate gunearen ideia ez litzateke baztertu beharko guztiz, egitura eta prozedura, malguak erabili beharko genituzke”.

Egileek nazioarteko hizkuntzak ere proposatu dute: Pompeu Fabraren irizpidea gure kasurako egokituz hartuz; hau da, %50 hizkuntza propioan, eta gaineratikoa portzentaia haindagoan gastelaniaz ingelesez baino. Nire ustez, proposamen horrekin hau baino lehenagoko orrialdeetan esandakoa desitxuraturuz; hizkuntza propioaren portzentaia askoz handiagoa izan behar duelako, eta nazioarteko hizkuntza ikastea, gaur egun Hizkuntza Eskolen bitartez egiten delako, Unibertsitateek kreditu zehatz batzuen trukez baliokidetzuz. Ordea, nazioarteko hizkuntzan irakatsi nahi baldin bada, hizkuntza eskubideak bermatuz gero, hizkuntza ofizialen hiztunei aukera berdintasunean eskaini beharko zen.

Titulazioen sailkapena ofizialtasunaren arabera egiten dute: Espainia mailakoa; erkidego mailakoa; EAEko edo Nafarroako gobernuak hartu beharko lituzketen baldintzetakoak: gure gizar-tearen beharretara egokitutako tituluak; eta, Europa osorako balio ofiziala izango luketenak. Tituluaren osagarritasuna helburu, gizar-teak zer behar duen eta zer eskatzen digun kontuan hartuz; ongi definituz zertan garen, edo izan gaitzkeen, onak, eskumenak eskatuz.


Ikerkuntzaz gogoeta egiten dute: emaitzak argitaratzerakoan egileak erabaki behar duela berak nahi duen hizkuntza hedapenaren arabera; nazio hizkuntza, euskara, dibulgaziorako utziz; eta tesiak euskaraz idaztea funtzeskoa dela hizkuntza prestakuntzarako.

Egileen ustez, unibertsitateak egoera gutxituan dauden kulturaren alde jokatu behar du, hizkuntza politika hortara bideratzuz. Unibertsitate legea dela eta, erabakitzeko ahalmena eskatzen dute, Hizkuntza, gure kasuan euskara, gure nortasunaren adierazle eta osagairik garrantzizkoena dugularik. Egileek aldarrikatzen dute unibertsitate sistema mundu osora irekia, eta aldi berean, ez dute nahi mugarik, ez dute nahi barrutirik, ez euskal barrutia, ez eta espainarra ere. Baina hona hemen nire baieztapena: barrutia, espainarra hor dago. Beraz, Europako mugikortasun eremu barruan euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko eta Euskal Herrian gure mugikortasuna bermatzeko, oraingoz, dugun bakarra da “euskal barrutia” sortzea, gastelaniaz edo frantsesez ikasi nahi dutenen mugikortasuna kaltetu gabe (zeren gogora dezagun ikasle euskaldunek euskaraz ikasi ahal izango dute irakasle euskaldunek euskaraz irakasten badiete, eta euskal irakasleek bederen titulazio arautuak ateratzeko Euskal Herrian daude). Baldintza hauekin Europako eremuaren barruan barrutiak dauden artean, “euskal barrutia” ez doa inoren aurka, ordea euskaldunen eskubideak bermatzearen alde doa. Ez da barrutia itxia, irekia baizik. Beste barrutirik ez baleude, berez desagertuko zen hauxe arautzearen beharra.

Azkenean, egileek galdera bat botatzen dute: Nolako unibertsitatea nahi dugu gure etxean, Euskal Herrian?, egileek euskal gizartearen autonomia handiagoa aldarrikatuz, Unibertsitate nazio sistema helburuz.

Baina, hausnarketa Euskal Herriaren ikuspegitik eginga dela azalarazi duten arren; ordea, EHUren nagusitasunaren ikuspegitik dagoela dirudi. Adibidetzat dugu esaldi hau: “besteak beste EHUk monopoliza baititzake euskal ikasleak, Nafarroatik eta Iparraldetik erakarriz” (166. orrialdean). Eztabaida, gizartean urteetan piztuta eta konpondu barik dago; liburu hau, zalantza barik, eztabaidarako eta ideien elkartrukaketarako balio izango duelakoan nago.

Alberto Bilbao Garzón



De TÚBAL a Aitor: historia de Vasconia

Iñaki Bazán (dir.). – Madrid: La Esfera de los Libros, 2002. – 749 p. , [24] p. de lám. ; 25 cm. – ISBN: 84-9734-083-3

Vasconia imaginada o el fin de la inocencia

La empresa que se propone este libro no es, en principio, más compleja que la de escribir la historia de Andalucía, o la de Silesia. Se trata de presentar de manera ordenada y coherente un manual de historia general del País Vasco, Navarra y territorios vascofonos de Francia que pueda ser de uso en aulas universitarias. Este